

BARATZEZAINZA INTERNETEN ERE

Baratzezaintza ekologikoari buruzko informazioa formatu mota askotan aurki dezakegu: liburuetan, ikastaroetan, tailerretan, gure partzela ondoko baratze-kidearengan, ... Baina, telefono mugikorrek eta tableten erabilera hainbeste zabaldu direnetik, ia denok mundu digitalera hurbildu gara, eta argi dago gero eta informazio gehiago bilatzen dugula Interneten bidez. Eta, jakina, baratzezaintzari buruzko informazioa ere bilatzen dugu!

Horrexegatik, gero eta gehiago dira baratzezaintzan espezializatutako YouTubeko kanalak, webguneak, blogak, e.a. Hainbeste dira gai honi buruz Interneten aurki ditzakegu proposamenak, hurrengo zerrenda sortu dugula YouTubeko webguneak eta kanal interesgarrienak izan daitezkeenekin, lagungarria izango zaizuelakoan.


Nahiz eta gure lurraldetik hurbilagoko proposamen gehiago eskaini nahiko genituzkeen, egia da zerrenda honetako webgune eta kanal gehienak Huescako, Asturiasko, Valentziako, Galiziako edo are urrutiagoko baratzezainen proposamenak direla. Dena den, eskaintzen dizkiguten informazioak gure lurraldeko baldintza klimatikoetara egokituz, ziur guztiongandik ere ikas dezakegula!



<https://www.ekogunea.eus/eu/ekogunea/baratze-parke-sarea/3-8/>

Berria bazara Baratze Parke Sarean eta oraindik gure webgunea ezagutzen ez baduzu, bertan sartzera gonbidatzen zaitugu: Sareko Baratze Parke bakoitzaren informazioa aurkituko duzu, Gipuzkoako hainbat udalerritan martxan dauden beste autokontsumorako baratzeen informazioa, baratzezaintzaren inguruko informazio tekniko eta Sareak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa.

Webgunean euskaraz eta gaztelaniaz nabigatu dezakezu.



<https://www.bizibaratzea.eus/>

Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961) paisajista, agronomo eta dibulgatzaile ezagunaren webgunea da *Bizi Baratzea*. Euskarazko webgune honetan, Jakobak ilargi-zikloetan oinarritutako agenda bat proposatzen digu, astero baratzean, basoan, lorategian, e.a. egin beharreko lanak zehaztuz. Landareen fitxa teknikoaren zerrenda luzea, galderen txokoa eta beste eduki interesgarri asko eskaintzen ditu. Oso webgune dinamikoa da, eta edukiak etengabe eguneratzen dira.

<https://educacionambiental.pamplona.es/eu/hezkuntza-komunitatea/eskola-baratze-ekologikoen/formakuntza-bideoak-eskola-baratzeak/>



Lotura honetan, Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Departamentuak baratzean urtean zehar egin beharreko lanak erakusten dituzten bideo praktikoak aurkezten ditu. Eskolako baratzeetara zuzenduta dagoen arren, informazioa era guztietako baratzeetarako ere baliagarria da. Bideoak euskaraz edo gaztelaniaz ikus ditzakezu.

<https://huertofamiliar.com/>



Pepe Ballarin da *El Huerto Familiar* izeneko webgunearen aita. Webgune honetan baratzeen eta etxeko lorategien inguruko gaiak azaltzen dira, eremu horietako lanei buruzko informazio ugari aurki dezakegu.

<https://www.youtube.com/@Elhuertofamiliar/featured>



Webguneaz gain, Pepe Ballarinek YouTuben ere badu kanal propio bat, *El Huerto Familiar* izenekoa ere, ia 400.000 harpidedun dituena. Kanal honetan zintzilikatutako bideoen bidez eta Huescako probintziako bere baratzetik, Pepék 100 barazki eta landare espezie ezberdin baino gehiago nola landu azaltzen digu, modu erraz eta ulergarrian, beste eduki askoren artean.

<https://www.youtube.com/user/iNoT1980>



La Huertina de Toni izena du Toni Jardonen YouTubeko kanalak. Toni, baratzezain eta informatikaria da eta Bolguesen (Asturias) duen baratzean grabatutako bideo ugari eskaintzen dizkigu. Bi milioi harpidedun inguru ditu kanal honek eta bertan zintzilikatutako bideoetan norberaren elikagaiak modu ekologiko eta organikoan lantzen erakusten digu, ongarri eta erremedio organikoak prestatzeko informazioa eskaini ere, hazitegiak pausoz pauso egiten ditu, e.a.

<https://www.youtube.com/channel/UCM-s05N1EzwjPQvRscHOCgw>



El Terregal de Ray YouTubeko beste kanal bat da, 500.000 harpidedun inguru dituena. Kanalean zintzilikatutako bideoetan, Raimundo Lucio Vazquezek, formazioz albaitaria, Mexikon duen baratze jarduerak partekatzen ditu: lurreen, bankaletan edo loreontzitan nola hazi barazki organikoak, autokontsumorako baratzezaintza ekologikorako gidak eta tutorialak, zizare-humusa eta beste ongarri naturalak nola prestatu, izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko praktika egokiak, e.a. topa dezakegu bere bideoetan.

<https://www.youtube.com/user/Dezkon85>



La huerta de Iván milioi bat harpidedun baino gehiago dituen YouTubeko beste kanal bat da. Ivan Vazquezek Turisen (Valentzia) duen baratzean oinarrituta bideo pila eskaintzen dizkigu. Baratze organikoa egiten irakasten digu, baita etxeko sendagaiak egiten edota baratzean ohikoak diren arazoak modu jasangarrian konpontzen. Bere hitzetan, bai kanaleko edukiak bai blogean argitaratzen dituenak ere esperientzian eta praktikarekin ikasitakoan oinarritzen omen dira.

<https://www.youtube.com/user/gferrise>



Cosas del jardín 2 milioi harpidedun baino gehiago dituen YouTubeko kanala da, Argentinatik iristen zaiguna (Kontuz egutegiak!... Argentina hego hemisferioan baitago). Gabrielelek, kanalaren sortzailea, bere kanalaren helburua baratze bat lantzen hasi nahi dutenentzat inspirazio iturri izatea dela dio, eta horrexegatik, bideoetan bere baratze esperientziak, trikimailuak eta aholkuak partekatzen ditu, ondo ateratzen zaizkionak eta bere hanka sartzeak ere.


<https://www.youtube.com/user/soengaliza>



Diario dun neno labrego YouTubeko beste kanal bat da, 30.000 harpidedun inguru dituena.

Vilamarín udalerrian (Ourense) duen baratze organikotik, Juanjo Rodriguezek bere ezagutza eta esperientzia partekatzen ditu bideo pila bitartez. Bere bideoak eduki multzoetan antolatuta ditu, eta honek gai zehatz bati buruz informazioa bilatzea errazten digu.

<https://www.youtube.com/@miracebo/featured>



Miracebo 20.000 harpidedun inguru dituen YouTubeko kanal bat da. Kanal honetan, Miguel Ruizek, lanbidez maisua izandakoa, norberaren elikagaiak ekoitzi nahi dituztenei ezagutza transmititzeko grinarekin jarraitzen du. Eta horrexegatik baratzezaintzazko bideo pila zintzilikatuta ditu, Suancesen (Cantabria) duen El Prao izeneko txokoan grabatutakoak.

HORTICULTURA TAMBIÉN EN INTERNET

Son muchos los tipos de formatos en los que podemos encontrar información sobre horticultura ecológica: en libros, en cursos, en talleres, en la usuaria de la parcela de al lado, ... pero, con la proliferación de los teléfonos móviles y *tablets*, casi todos nos hemos acercado al mundo digital y está claro que cada vez buscamos más información a través de Internet. Y, desde luego, ¡también buscamos información sobre horticultura!

Y así, cada vez son más numerosos los canales de YouTube, webs, blogs, etc. especializados en temas de horticultura. Son tantas las propuestas que podemos encontrar en Internet acerca de este tema, que hemos recopilado en la siguiente lista las webs y los canales de YouTube que creemos que pueden ser más interesantes.


Aunque nos gustaría ofreceros un número mayor de propuestas más cercanas a nuestro territorio, es cierto que la mayoría de webs y canales de este listado son propuestas de horticultores de Huesca, Asturias, Valencia, Galicia o de lugares aún más lejanos... de cualquier modo, adaptando las informaciones que nos ofrecen a las condiciones climáticas de nuestro territorio ¡seguro que podemos aprender de todos ellos también!



<https://www.ekogunea.eus/es/ekogunea/baratze-parke-sarea/3-8/>

Si eres nuevo/a en la Red Baratze Parke Sarea y aún no conoces nuestra web te invitamos a entrar en ella: encontrarás información de cada uno de los Parques de Huertos de la Red, de otras huertas de autoconsumo que están en marcha en diferentes municipios de Gipuzkoa, información técnica sobre horticultura y sobre los servicios que ofrece la Red.

Puedes navegar en la web en euskara y en castellano.



<https://www.bizibaratzea.eus/>

Bizi Baratzea es la web de Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961), paisajista, agrónomo y gran divulgador. En esta web en euskara, Jakoba nos propone una agenda basada en los ciclos lunares, detallándonos las tareas a realizar cada semana en la huerta, bosque, jardín, etc. Nos informa de los mercados y otras actividades relacionadas con estos temas en los municipios de Euskal Herria. Ofrece una lista extensísima de fichas técnicas de plantas, el rincón de las preguntas, y otros contenidos muy interesantes. Es una web muy dinámica donde continuamente se actualizan los contenidos.

<https://educacionambiental.pamplona.es/comunidad-educativa/huertas-escolares/videos-de-formacion-huertas-escolares/>



En este enlace el Departamento de Educación Ambiental del Ayuntamiento de Pamplona presenta una serie de vídeos prácticos en los que se muestran las labores a realizar a lo largo del año. Aunque está dirigido a huertas escolares, la información es igualmente válida para todo tipo de huertas. Puedes ver los vídeos en euskara o en castellano.

<https://huertofamiliar.com/>



Pepe Ballarín es el responsable de esta web llamada *El Huerto Familiar* dedicada al huerto y al jardín familiar. En ella encontramos todo tipo de información relacionada con las labores en estos ámbitos.

<https://www.youtube.com/@Elhuertofamiliar/featured>



Pero, además, Pepe Ballarín tiene un canal propio en Youtube, también llamado *El Huerto Familiar*, que tiene casi 400.000 suscriptores. En los vídeos de este canal, y desde su huerta en la provincia de Huesca, explica de forma sencilla y muy comprensible cómo cultivar más de 100 especies diferentes de hortalizas y plantas, entre otros muchos contenidos.

<https://www.youtube.com/user/iNoT1980>



El canal de YouTube *La Huertina de Toni* es un canal donde Toni Jardón, horticultor e informático, nos ofrece muchísimos vídeos desde su huerta ubicada en Bolgues (Asturias). Con cerca de 2 millones de suscriptores, en sus vídeos nos enseña a cultivar de forma ecológica y orgánica nuestros propios alimentos, nos ofrece información para crear fertilizantes y remedios orgánicos, realiza semilleros paso a paso, etc.

<https://www.youtube.com/channel/UCM-s05N1EzwjpQvRscHOCgw>



El terrenal de Ray es un canal de YouTube con cerca de 500.000 suscriptores, donde a través de sus vídeos, Raimundo Lucio Vázquez, veterinario de formación, comparte las actividades de su huerta situada en México, y donde se puede encontrar información relacionada con horticultura orgánica en suelo, bancales o macetas, guías y tutoriales para la horticultura ecológica de autoconsumo, vermicultura, producción de abonos naturales, buenas prácticas para el control de plagas y enfermedades, etc.

<https://www.youtube.com/user/Dezkon85>



La huerta de Iván es otro canal de YouTube con más de 1 millón de suscriptores. Desde su huerta en la localidad de Turís (Valencia) Iván Vázquez ofrece vídeos donde enseña a cultivar de forma orgánica, cómo elaborar remedios caseros y cómo solucionar de forma sostenible problemas habituales en la huerta. Según Iván, tanto los contenidos de su canal como los que publica en su blog se basan en la experiencia y aprendizajes obtenidos con la práctica.

<https://www.youtube.com/user/gferrise>



Cosas del jardín es un canal de YouTube con más de 2 millones de suscriptores que nos llega desde Argentina (¡Ojo con los calendarios!... Argentina está en el hemisferio sur). Gabriel, su responsable, dice que el objetivo de su canal es ser una fuente de inspiración para quienes quieren empezar a cultivar un huerto, y así, en sus vídeos comparte sus experiencias en la huerta, sus trucos y consejos, sus aciertos y sus errores.


<https://www.youtube.com/user/soengaliza>



Diario dun neno labrego es otro canal de YouTube que cuenta con unos 30.000 suscriptores.

Desde su huerta orgánica situada en el municipio de Vilamarín (Ourense), Juanjo Rodríguez comparte sus conocimientos y experiencia a través de sus numerosos vídeos presentados en bloques de contenidos, lo que facilita la búsqueda de información en algún tema en concreto.

<https://www.youtube.com/@miracebo/featured>



Miracebo es un canal de YouTube con cerca de 20.000 suscriptores. En este canal, Miguel Ruiz, maestro de profesión, sigue con su afán de transmitir conocimiento a quienes quieren producir sus propios alimentos. Sus vídeos de horticultura están grabados en su rincón llamado El Prao, donde se localiza su huerta, en Suances (Cantabria).